

DIRU ITURRIAK

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest egongo da zuen bezero potentziala eskaintzen diozuen produktu edo zerbitzuaren truke?**

Pertsona bakoitzak ikusiko du ze klasetan egon nahi den, non sartu nahi den, orduan berak sartzea nahi duen momentutik nahi duenerarte kuota bat ordaintzen egongo da. Kuota hori hilero ordaindu beharko da hau da momenturen baten gure akademia utzi nahi bada, eta hilabete erdialdea bada, hilabete osoa ordaindu beharko du. Honako hauek dira klase orduen prezioak:

Gure zerbitzua erabiltzen dutenak kuota bat izango dute.

Eta Oñatin aurkitzen diren erakundeekin (adineko pertsonekin harremanetan daudenak) adostu ditzakegu prezioen erreferentziak izan eta bazkide txartelak eratu beraien eta gure enpresen artean, bezeroek ere erraztasunak izan ditzaten.

Hasieran izango ditugun gastuetarako prestamu bat eskatu behar da. Abiapuntu gisa ondo etorriko zaigu, nahiz eta komeni zaigun lehenengo egunetik bezeroak izan eta dirua irabazten hastea.